

## GABIRABA, MIRUA ETA AZERIYA.



(NERE ADISKIDE ON KARMELO ECHEGARAY JAUNARI.)

Chituak ari ziran  
goiz batean jaten;  
gabirau batek goitik  
ziyen begiratzen;  
beste bazter batetik  
irtenik mirua,  
eta nola ibiltzen  
dan chit agurua,  
pentsatu zuben azkar  
bertaraño joanta  
irtetzia ostera  
chito denak janta;  
gabirabak asmoa  
berdiña bai zuben,  
arrek ere chitoak  
ostu nai zituben;  
ala sarrera zuben  
egiñ an bertara;  
mirua ere gogoz  
sartu zan artara,  
bañan biyak batetan  
eldurikan bati,

diyo batek: Aizak, i  
utzi nazak neri  
«Eldu akiyok beste  
ik nai dekanari.»  
Ez diat nai, utzi zak  
neria dek ori....  
Erdi asarre ontan  
zabiltzala biyak,  
zulotikan ikusi  
zuben azeriyak,  
eta korrika joan ta  
arrapaturik an,  
berialasen bertan  
zituben biyak jan.  
.....  
Aserriak ez baitu  
ekartzen gauz-onik;  
kontugabetzen bada  
eztago jardunik.  
Esaerak diyonez  
daukagu esanik,  
ezdala charrik ondo  
etortzen ezdanik.